



Aurkeztu ziren 16 lanetatik “Ez erran inori” izeneko proiektuak jaso du edizio honetako saria

Iazko irabazle Irati Goikoetxeak “Herriak ez du barkatuko” lana entregatu eta sariaren bigarren zatia jaso du ekitaldi berean

XXIII. Igartza Literatura Beka sariaren edizioko irabazlea Maddi Ane Txoperena Iribarren lesakarra izan da “Ez erran inori” proiektuarekin, hala erabaki baitu Ana Jaka, Irati Jimenez eta Garazi Kamiok osatutako edizio honetako epaimahaiak.

Igartzako jauregian Covid 19ak eragindako babes neurriekin egindako ekitaldian, egileak “Ez erran inori” proiektuaren kontakizuna zertan datzan aurreratu du; umetan sexu-abusuak jasandako neska baten (Lide) istorioa kontatzen du: gertakari hori barruan lozorroan gorderik eduki ondoren hainbat urtez, piztia ernatzen zaio eta mina berpizten. Erruduntasun-sentimenduek eta autoestimu-faltak jazarrita, sexuan

hartu nahiko du babesa: harreman korapilatsuetan, lagunarte konplikatu batean.

Aurkezpenean Elkar-en izenean Xabier Mendiguren, CAFenean Joxe Begiristain eta udalaren aldetik Xabier Matarranz izan dira sarituarekin batera. Maddi Txoperenak proiektuarengatik 6.000 euroko sariaren erdia eta garaikurra jaso ditu sariaren ordezkarien eskutik eta urte beteko epea izango du liburua amaitzeko.

Bertsolari, idazle eta kazetari

Aurtengo irabazlea 1994an Hendaian (Lapurdi) jaioa den arren, Lesakan bizi da. 8 urte zituela hasi zen Hendaiako bertso eskolan, Kristine Txoperena ahizpak animatuta. Euskal Herriko eskolarteko txapela jantzi zuen 2011-an, eta hainbat gazte sariketatan parte hartu du. 2012-an Xilaba Xiberoa Lapurdi eta Baxenabarreko Bertsolari Txapelketan parte hartu zuen. Gaur egun Bortzirietako bertso eskolan aritzen da. Gizarte Antropologiako ikasketak egiten ari da, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU), kazetari eta kolaboratzaile lanetan arituz Berria eta Topatu.eus komunikabideetan. 2020. urtean Gazteluma bekari esker, Ene baitan bizi da nobela laburra idatzi du. Sari honi batu zaio orain, Igartza Literatura Beka.

Ekitaldi berean, iazko irabazleak, Irati Goikoetxea Asurabarrena beasaindarrak, “Herriak ez du barkatuko” lana entregatu ostean diru sariaren bigarren zatia jaso du eta datorren urteko otsailean aurkeztuko da liburua.

Idazle gazteen sorkuntza-lana saritzea

Igartza Literatura beka saria Beasaingo Udalak idazle berrien sormena bultzatzeko helburuarekin sortu zuen. Baldintza nagusiak, 35 urte bete gabe izatea, aurretik lan argitaraturik izatekoetan helduentzako bi liburu baino ez izatea eta lanak jatorrizkoak eta euskaraz sortuak izatea dira.

Elkar argitaletxea eta CAFen laguntzarekin XXIII. edizioa izan den honetan, 16 lan aurkeztu dira. Horietatik 9 emakumeenak eta 7 gizonezkoenak. Aurkeztu diren lanen jatorriari dagokionez 10 gipuzkoarrak, 2 nafarrak, 2 bizkaitarrak eta 2 arabarrak izan dira.

XXIII. Igartza literatura bekaren saria Maddi Ane Txoperenarentzat

Azken eguneratzea: Ostirala, 11 Iraila 2020 11:15

Argitaratua: Osteguna, 10 Iraila 2020 19:44



XXIII. Igartza literatura bekaren saria Maddi Ane Txoperenarentzat

Azken eguneratzea: Ostirala, 11 Iraila 2020 11:15

Argitaratua: Osteguna, 10 Iraila 2020 19:44



Orain arteko irabazleak:

LIBURUA	IGARTZA SARIA	URTEA	ARGIT. URTEA	EGILEA
TUBABU	I. ^a		1994	Jon Arretxe Perez
CONNEMARA GURE	I. beca	1998	2000	Julen Gabiria
BIHOTZETAN				Lara
EGUN DENAK EZ	II. beca	1999	2001	Xabier
DIRA BERDIN				Etxeberria Garro
KORAPILOAK	II. beca accesit	1999	2001	Jasone Osoro
ORTZADARRA	III. beca	2000	2002	Igartua
SUTAN				Fernando
VAN'T HOFFEN	IV. beca	2001	2003	Morillo Grande
ILEA				Unai Elorriaga
HAN GOITIK	V. beca	2002	2004	Lopez de Letona
ITSASOA				Julen Gabiria
IKUSTEN DA				Lara
KARONTE	VI. beca	2003	2005	Asel Luzarraga
AMAREN ESKUAK	VII. beca	2004	2006	Zarrabeitia
LILE	VII. beca accesit	2004	2006	Karmele Jaio
AULKI BAT	VIII. beca	2005	2007	Eiguren
ELURRETAN				Peru Magdalena
ERO	IX. beca	2006	2008	Arriaga
				Uxue Alberdi
				Estibaritz
				Jon Martin
				Etxebeste

XXIII. Igartza literatura bekaren saria Maddi Ane Txoperenarentzat

Azken eguneratzea: Ostirala, 11 Iraila 2020 11:15

Argitaratua: Osteguna, 10 Iraila 2020 19:44

LIBURUA	IGARTZA SARIA	URTEA	ARGIT. URTEA	EGILEA
HABITAT	X. beca	2007	2009	Katixa Agirre Miguellez
NORA EZ	X. beca	2007	2009	Irati Jimenez
DAKIZUN HORI	accesit			Uriarte
KATU JENDEA	XI. beca	2008	2010	Eider Rodriguez Martin
MEA CULPA	XII. beca	2009	2011	Uxue Apaolaza Larrea
BESTE	XIII. beca	2010	2012	Garazi Kamio Anduaga
NORBAITEN				
ZAPATAK				
GELTOKIAK EDO	XIV. beca	2011	2013	Goiatz Labandibar
HELDUTA				Arbelaitz
ENTZUTEKO				
ABESTIAK				
ERRAIAK	XV. beca	2012	2014	Danele Sarriugarte Mochales
EZ TIRO EGIN	XVI. beca	2013	2015	Mikel Ayllon Corral
ANBULANTZIEI				
HAUTS	XVII. beca	2014	2016	Unai Villena Camarero
HAJETATIK				
NOLA HELDU	XVIII. beca	2015	2017	Kattalin Miner Perez
NAIZ NI				
HONAINO				
ZALDI MAMARROA	XIX. beca	2016	2018	Ekaitz Goienetxea Cereceda
BASA	XX. beca	2017	2019	Miren Amuriza Plaza
ZENDABALITZ	XXI. beca	2018	2020	Erika Elizari Salvador
HERRIAK EZ DU	XXII. beca	2019	2021	Irati Goikoetxea Asurabarrena
BARKATUKO				
EZ ERRAN INOR	XXIII. beca	2020	2022	Maddi Ane Txoperena Iribarren